

2021-2022 ikasturteko txostena

Aldezlea

Joxin Etxezarreta Odriozola

Arau-esparrua

*Deustuko Unibertsitateko Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudia*¹ betetzeko, zeinak indarrean dagoen legearen (LOU 6/2001) hamalagarren xedapenean ezarritako oinarriak jasotzen dituen, Aldezleak 2021eko irailaren 1etik 2022ko abuztuaren 31ra egindako lanaren Urteko Txostena aurkezten du, araudi horren 15. artikuluari jarraiki: “Aldezleak urteko txostena prestatuko du, aurreko ikasturtean burutu dituen jarduerak zehazteko. Txosten horretan jasoko da zenbat erreklamazio eta zein motatakoak aurkeztu diren, izapidetzeko onartu ez direnak zergatik ez diren onartu, eta izapidetzeko onartuetan zein izan den emaitza. Txostenean ez da isilpeko daturik edo datu pertsonalik jasoko, interesdunak identifikatzeko modurik egon ez dadin”.

Txosten hau ohiko moduan zabalduko zaio Deustuko Unibertsitateko elkarteari, barruko komunikabideak, estraneta eta sare sozialak erabiliz. Dokumentua Unibertsitateko Aldezlearen webgunean² jarrita egingo da aurkezpen publikoa eta bertan egongo da ikusgai aurreko urteetako txostenekin batera. Aurretik, 2022ko azaroaren 24ko Kontseilu Akademikoan, txosten honen laburpena eta jardunari buruzko gogoeta egin ziren, eta, amaitzeko, unibertsitatearen hizkuntza-politikari buruzko hitz batzuk ere adierazi ziren.

Txostena idazteko orduan, ahalegina egin da unibertsitateko elkarteko kide guztien eskubide eta askatasunak errespetatzeko eta konfidentzialtasun osoa gordetzeko pertsonen eta kasuen tratamenduan, urtean zeharreko jarduketei buruzko informazioaren gardentasuna galdu gabe.

¹ Kontseilu Akademikoak 2013ko martxoaren 14an onartua eta 45. DUAOn argitaratua eta 2020ko urriaren 20an aldatua eta 77. DUAOn argitara emana, 2020ko urriaren 30ean.

² https://www.deusto.eus/cs/Satellite/deusto/eu/deustuko-unibertsitatea-2/deusturi-buruz/nor-garen/aldezlea?cambiodioma=si&_ga=2.208516817.2112527584.1607934482-1074885207.1539265624

EDUKIAK

Aurkezpena (4)

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak (4)
2. Datuak, analisiak eta jarduketaren deskribapena (5)
 - a. Aztertutako gaiak (5)
 - i. Jarduketaren bilakaera (6)
 - ii. Tipologiaren arabera (6)
 - iii. Campusaren arabera (7)
 - iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera (7)
 - v. Sektoreen arabera (8)
 - vi. Zentroen eta zerbitzuen arabera (9)
 - vii. Kolektiboaren eta sexuaren arabera (9)
 - viii. Ikasketa mailaren arabera (10)
 - ix. Ebazpenak (11)
 - x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera (11)
 - b. Datuen balorazioa (12)
3. Jarduketa instituzionalak (13)
 - i. Kanpoko jarduketak (13)
 - ii. Ikasleak (14)
4. Azken gogoetak (15)

Aurkezpena

Memoria covid19aren ondoriozko azken neurriekin hasi zen ikasturte bati dagokio eta, era berean, neurri berezien bukaera ikusi zuen ikasturteari. Aurreko memorien eskemari jarraituko dio gutxi gorabehera, horrela beste urteetako datuekin alderatu ahal izateko.

Ohi duen bezala, ikasturte honetan zehar ere Aldezlea zerbitzura laguntza eske hurbildu den pertsona orori laguntzen saiatu da. Arazoak elkarrizketa bidez konpontzen eta adostasunera heltzen ahalegindu da beti.

Gure esker ona adierazi nahi diegu arazoak konpontzen lagundu duten unibertsitateko organoei eta pertsoneri; baita kexa, erreklamazio, kontsulta edo arazoren bat adieraztera eta, orokorrean, haren esku-hartzea eskatzera Aldezlearengana jo duten guztiei ere, zerbitzuan erakutsitako konfiantzagatik.

Era berean, barkamena eskatu nahiko genioke Aldezlearen partetik guztiz defendatua sentitu ez denari, edota bere eskubideak ez direla aitortuak izan sentitu duenari.

1. Aurre gogoetak eta kontsulta motak

Ikasturte honetan era honetako jarduketak kudeatu dira:

- **Kexak.** Kexa egiten duenak uste du unibertsitateko organo edo pertsona batek hartutako erabaki batek edo egintza batek bere eskubideak urratzen dituela. Mota honetako erreklamazioak Aldezlearengana iristeko, arazoa konpontzeko eskura dauden beste bide guztiak agortu behar ditu aurretiaz. Alabaina, nahiz eta jakin Aldezleak azken aukera gisa bakarrik jarduten duela, ohikoa izaten da Defentsa bulegora etortzea, arazoa konpontzeko orientazioa, laguntza edo aholkua eskatzeko. Dena delakoagatik errekurtsioa Aldezleari ez badagokio, orduan ez da eskabidea izapidetzen.
- **Kontsultak.** Kontsulta egitera datorrenak orientazioa, informazioa edo laguntza behar du. Gaiak askotarikoak izan daitezke: arauak, administrazio kontuak, zerbaiten funtzionamendua edo elkarbizitzarekin edo lanarekin zerikusia dutenak. Unibertsitateko kudeaketa-organoetako arduradunen aurrean egin ohi dira gestioak, eta, normalean, arazoa azkar konpontzen laguntzen dute. Batzuetan, nahikoa izaten da informazioa ematea.
- Aldezlearen eginkizunetan **bitartekaritza** lanak ere badaude. Gero eta gehiago gomendatzen da bitartekaritza baliatzea unibertsitateko bizitzako gatazkak konpontzeko, unibertsitateko elkarteko kide edo talde batek eskatuz gero. Aurten ez da bitartekari lanik egin behar izan.
- Eta azkenik, Aldezleak **ofiziozko jarduketak** egiten ditu ikusiz gero Unibertsitatearen ebazpen edo egintzaren batek edo unibertsitateko

elkarteko kideren batek edo batzuek unibertsitateko kideen eskubideak urratzen dituztela. 2021-2022 ikasturtean zehar ez da ofiziozko jarduketarik egon.

Kasuen izaeraren arabera, Aldezleak, ebazteko ahalmenik ez duenez, gomendioak edo iradokizunak eman ditzake edo txostenak egin aurkeztutako kexen ondorioz. Agintari akademikoei edo zuzendaritzakoei dagokie kasuan-kasuan behar dena egitea.

Izapidetzea onartuz gero, interesdunaren eskabideari dagozkion jarduketei ekiten zaie. Aldezlearen Antolaketari eta Jardunbideari buruzko Araudiaren (9. art.) eskakizunak betetzen ez diren kasuetan, **ez da onartzen eskabidea izapidetzea**. Webguneko inprimaki bidez jasotako kexa guztiak izapidetu dira. Dena dela, jarduketaren batean gertatu izan da, zenbait kexa unibertsitateko hainbat instantzian izapidetu direnez, Aldezleak instantzia horiek erantzun arte itxaron behar izan duela.

Azkenik, araututako jarduketetatik kanpo, arestian esan bezala, zenbait pertsona arreta bila eta entzunak izatera etorri dira. Denei eman zaie arreta eta, kasuen arabera, aholkua ere bai.

2. Datuak, analisiak eta jarduketaren deskribapena

Atal honetan, landutako gaiari buruzko datu estatistikoak aurkezten dira, 2021-2022 ikasturteko jarduketaren laburpen batekin batera.

Kexak eta kontsultak Aldezlearen ohiko gestio pertsonalen bidez ebatzi dira; hots, egoera eta arazoak aztertu dira, kasuarekin zerikusia duen aginte, organo edo zerbitzuarekin hitz egin da eta informazioa edo txostenak eskatu dira. Kasuaren izaeraren arabera, kexak eta kontsultak egiteko, jendeak Aldezlearen bulegora zuzenean jotzeaz gain, telefonoz deitu edo posta elektronikoa ere bidali du. Horrez gain, bideokonferentzia izan da arazoak artatzeko eta konpontzeko bidea. Kasuen arabera, txostenak edo gomendioak bidali zaizkie pertsona, zerbitzu edo organoei kalteak konpontzeko edo, orokorrean, zerbitzua hobetzeko.


a. Aztertutako gaiak

Jarraian, honako datu hauei dagozkien grafikoak ageri dira: jarduketaren bilakaera, tipologia, campusaren araberrako banaketa, erabilitako hizkuntzaren araberrako banaketa, sektoreen araberrako banaketa, zentro eta zerbitzuen araberrako banaketa, kolektiboaren eta sexuaren araberrako banaketa, ikasketa mailaren araberrako banaketa, ebazpenen egoera eta emaitza, eta, amaitzeko, taula


batean aurkezten dira jarduketak, eskaeraren arrazoiaren deskribapenarekin, kolektiboen arabera banatuta.

i. Jarduketan bilakaera

2021-2022 ikasturtean, Aldezlearen bulegora aurreko ikasturtean baino pertsona gehiago hurbildu dira, zehazki, 10 gehiago (% 52 gehiago). 29 jarduketa erregistratu dira; horietatik 6 kontsultak izan dira eta 23 kexa eta erreklamazioak.




ii. Jarduketa motak



Eskabide motei dagokienez, kontsultak ia lautik bat dira; aurreko ikasturtean baino proportzio apur bat txikiagoa.


Aldezlearen web orriaren inprimakia izan da hasierako izapidetze bidea batez ere. Elkarrizketa pertsonalak eta telefonikoak ere egon dira.

iii. Campusaren arabera banaketa



Bilboko campusa da esku-hartze gehien dituen (% 79); dena dela, Donostiako campusa igo egin da aurreko ikasturtearekin alderatuta.

iv. Erabilitako hizkuntzaren arabera banaketa




Gaztelania da hizkuntzarik erabiliena erreklamazioak egiteko orduan.

v. Sektoreen arabera banaketa




Ikasleak dira, aurten ere, Aldezlearen zerbitzua gehien erabili dutenak. Ikasleok, bestalde, graduak dira, masterreko ikasle bat eta alumni bat izan ezik. Kasu batzuetan familia izan da hurbildu dena, ez ikaslea bera. Ikasturte honetan, aurrekoan bezala, ez da ez irakasle, ez ikertzaile, ez administrazio eta zerbitzuetako langilerik hurbildu.

vi. Zentroyen eta zerbitzuen arabera banaketa



Izapidetu diren eskabideetako auzi gehienak, 18 zehazki, fakultateei dagozkie zuzenean, eta gainerakoak unibertsitateko beste zerbitzu edo sail batzuei buruzkoak dira: CRAI, Idazkaritza Orokorra, Bekak, Ikastetxe Nagusia, Deusto Campus eta azpiegitura.


vii. Kolektiboaren eta sexuaren arabera banaketa



Aurreko ikasturteetan ez bezala, Aldezlearen bulegora jo duten gizonen kopurua handiagoa da emakumeena baino. Zaila da horri buruzko ondorioren bat


ateratzea, baina argi dago azken lau urteetako joera hautsi dela, eta esanguratsua da ez dagokiola unibertsitate-komunitatearen barruan genero bakoitzak duen proportzioari.

viii. Ikasketa mailaren arabera banaketa



Ikasketa mailaren arabera, aurreko urteetan bezala, graduko ikasleak izan dira Aldezlearen bulegora gehien hurbildu direnak, 25 zehazki. Graduondoko 3 kasu izan dira, eta alumni 1.

ix. Ebazpenak



Esan dezakegu kexa eta kontsulta guztiak bideratu direla. Aldekoak izan ez diren ebazpenen proportzioa hirutik bat da, gutxi gorabehera, aurreko ikasturtean bezala. Oraingoan, aurreko ikasturteetan ez bezala, ez da ia COVID-19tik eratorritako iradokizun edo proposamenik izan. Bai, ordea, ikasle berriak onartzeko moduekin lotutako proposamenak, batez ere eskaera handia dagoen gradu berrietan. Era horretako iradokizun eta arazoak izan dira “bideratutzat” jo ditugunak, nahiz eta kasu gehienetan ezin izan zaien aldeko erantzunik eman.

x. Jarduketak eskaeraren eta kolektiboaren arabera

Jarduketak eskaeraren arabera	Ikasleak
Zailtasunak eskaerak egitean, beketan, familia ugarientzakoak	2
Kexak azpiegiturei, instalazioei, CRAI espazioen erabilerari eta abarri buruz	5
Kexa maskara erabili beharraz COVID-19aren ondorioz	1
Kexa tituluak jasotzeko atzerapena dela eta	1
Desadostasuna onarpen-irizpideak direla eta	3

Kexak ebaluazio-sistema, etengabeko ebaluazio-irizpideak, lanak emateko epeak, eskakizun-maila eta praktiken kalifikazioa direla eta	6
Kontsultak hizkuntza-egiaztapenaren eskakizunari buruz, deialdiez, baliokidetzaz eta irakasgaiaren hizkuntza-aldaketaz	4
Kexa ikasketetan aurrera egiteko araudiaren ondoriozko arazoei buruz (deialdiak)	1
Kexa langileen protestengatik azterketaldian izandako zarata dela eta	1
Kontsulta tesi-zuzendaritzarekiko desadostasunaz	1
Hainbat kontsulta: ikasketak uztea, graduazioak...	4
Guztira	29

b. Datuen balorazioa, hausnarketa

Aurreko datuak aztertuta, hiru multzo garrantzitsu bereiz ditzakegu.

Alde batetik, azpiegiturekin eta haien erabilerarekin lotutako kexak daude: entxufe falta, mikrouhin falta, CRAiko egutegia eta bertako postuen erabilera. Bide batez, azpimarratu nahi dut ikasleek egiten dituzten eskaera horiek beren ordezkarien bitartez eta dagozkien bideetatik bideratzen direla. Era berean, greban zeuden Sodexoko garbitzaileen protestek eragindako eragozpenak gogoratu nahi ditugu, hori zela eta kexa formalen bat jaso baikenuen. Denok dakigu horren kudeaketa ez zela erraza izan.

Bigarren multzoan, aurreko ikasturteetan bezala, ebaluazioarekin, kalifikazioarekin, hurrengo mailara pasatzearekin eta ikasten jarraitu ahal izatearekin lotutako kexak eta kontsultak daude: zer egin litekeen ebaluazioarekin ados ez gaudenean; hurrengo mailara pasatzeko arazoak; ikasleak egiten ari den graduatuko bat hautatu behar izatea; kexa ugari irakasgai jakin batzuk gainditzeko eskakizun-mailaz eta gaindituen kopuru baxuaz, zehazki Ingeniaritza eta Zuzenbide fakultateetan. Ebaluazio jarraituak ere egoera zailtarako eta kexetarako bidea eman du, bai irakasleentzat bai ikasleentzat: lanak burutzeko epeak ez daudela argi; aurreko jardura txikiek ebaluazioak baldintzatzen dituztela; klasera erregulartasunez joateko zailtasunak dituzten pertsonen trabak eta, batzuetan, zigorrak jartzen zaizkiela nahiz eta ez joatea justifikatu... Ildo horretan, aurreko txostenean esandakoa gogorarazi nahi nuke: araua denentzat berdina bada ere, eta tratu diskriminatzailearik egon ezin bada ere, beharrezkoa da gogoratzea pertsona bakoitzak bere inguruabarrak dituela; beraz, uste dut erabakiak hartzerakoan hori kontuan hartu behar dela. Azkenik, bigarren multzo honetan gogora ekarri nahi dut ikasle batek kanpoko praktikan izandako arazoak: ikastetxean praktikak eten zizkieten praktika horiek amaitzeko oraindik bi heren geratzen zitzaizkiola. Praktiken arduradunei egin diedan

gomendioa izan da praktikak eteteko arrazoiak ondo arautzeko eta ikasleei argi jakinarazteko.

Azkenik, gai eta arazo batzuetan, ikaslearen ordez familiak jo du zuzenean Aldezlearengana eta kasu horiek sartu ditugu, batez ere, hirugarren multzoan. Lehenengo hausnarketa da familiak zenbateraino jo dezakeen ikaslearen izenean defentsa-organora. Araudiak adierazten duenez, Aldezleak unibertsitate-komunitatea artatuko du, hau da, ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta irakasle eta ikertzaileak. Ikaskuntzaren emaitzekin, ebaluazioarekin eta gai metodologikoekin lotutako kasuetan, adierazi diegu ikaslea bera hurbildu behar dela. Aldiz, gai ekonomikoekin, bekekin, familia ugariarekin eta abarrekin zerikusia duten kasuetan, senidearekin zuzenean bideratzen saiatu gara, normalean aitarekin edo amarekin. Azken multzo horretan, unibertsitatean onartuen eta ez onartuen gaia nabarmentzen da (eskaera handia dagoen eta sartu gabe hautagai asko geratzen diren graduetan): irizpideak, baldintzak, baremazioak, gardentasuna, epeak, itxaron-zerrenda... Badakit birplanteamendua eta hausnarketa egiten ari direla. Uste dut oso komenigarria dela lehenbailehen egitea eta interesdunei helaraztea.

Kexei eta erreklamazioei buruzko azken gogoeta bat egin behar dugu prozesuaz; izan ere, ikasleak edo familiak gero eta gehiago hurbiltzen dira defentsa-organora ohiko bidea itxi gabe edo instantziaren baten erantzunaren zain daudela. Uste dugu itxarotea dagokigula, eta halaxe adierazten du araudiak. Baina, batzuetan, epe laburrak egoten dira eta lehenengo esku-hartze bat egiten dugu itxaron barik. Baliteke arduradunen batek gaizki hartzea; ez da gure asmoa traba egitea.

Atal hau amaitzeko, Aldezlearengana hurbildu direnen kopuruak gora egin badu ere, azken bi urte hauetan hurbildu ez direnak aipatu nahi nituzke. Unibertsitateko langileen kolektiboko (AZL, irakasle-ikertzaileak eta ikertzaileak) inork ez du kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu. Datu esanguratsua iruditzen zait eta kezkatu egiten nau.

3. Jarduketa instituzionalak

i. Kanpoko jarduerak

Pandemiak eragindako geldialdiaren ondoren, CEDUren (Conferencia Estatal de Defensorías Universitarias) urteroko aurrez aurreko topaketa egiteko aukera izan genuen 2021eko azaroan, oraingo honetan, Cadizeko Unibertsitatean, oso gai interesgarriak jorrazteko: gatazketako bitartekaritza, elkarrekiko errespetua edo

onarpen-prozesuan zeuden bi legeak (Unibertsitateko Bizikidetzaren Legea eta Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa) defentsa-erakundeetan izan ditzaketen ondorioak.

Bizikidetzari buruzko Legea otsailaren 28tik dago indarrean, eta azpimarratu behar da urtebeteko epea ematen duela unibertsitateek beren bizikidetzara-arauek idatz ditzaten, batez ere gatazkak konpontzeko bitartekaritza bultzatzeko eta bizikidetzara-batzorde bat sortzeko. Ez legoke soberan, halaber, gure ikasleen araudia berrikustea diziplina-erregimenari dagokionez, gure inguruko unibertsitateekin edo UNIJESeko unibertsitateekin alderatuta. Bidean zailtasunak aurki ditzakegula jakinda ere, uste dut prozesu horri bultzada eman behar diogula dagokigun arduradunen artean.

Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoari dagokionez, Gobernuak onartu badu ere, Parlamentuan onartzeko zain dago. Unibertsitate publikoez ari denean, 43. artikulua unibertsitateek eduki behar dituzten oinarriko unitateak zehazten ditu: "Unibertsitateek berdintasuneko, aniztasuneko, defentsako eta zerbitzuen ikuskaritzako unitateak izango dituzte."

Aldiz, unibertsitate pribatuei buruzko X. tituluan, 97. artikuluan, Zentroak eta egiturak izenekoan, honako hau dio: "1. Unibertsitate pribatuak beren antolamendu- eta funtzionamendu-arauek zehazten duten moduan egituratuko dira. 2. Unibertsitate pribatuek berdintasuneko eta aniztasuneko unitateak izan beharko dituzte."

Beraz, horren arabera, desagertu egingo litzateke defentsako unitate bat (Aldezlea) izateko betebeharra, 2001eko LOU legeak ezartzen zuen bezala. Horretaz ohartuta, CEDUK Legebiltzarreko talderen bati eskatu dio zuzenketa bat aurkez dezala, Aldezlea araudian sartzeko. Ikusi beharko da behin betiko testua nola geratzen den.

ii. Ikasleak

Beste behin, *Deusto Campusaren* laguntzarekin, ikasturte honetan bi ikastaro eskaini zaizkie ikasleei. Lehen seihilekoan, "Gatazka modu positiboan kudeatzeko tresnak eta teknikak: negoziazioa eta bitartekaritza", eta bigarren seihilekoan, "Eskola jazarpena eta ziberjazarpena. Prebentziorako eta esku hartzeko tresnak". Biek arrakasta handia lortu zuten, bai deialdiak izandako erantzunean, bai azken ebaluazioan eta bertan parte hartu zutenen asebetetzean.

4. Azken gogoetak

lazko txostenaren ondoren, Errektorearen iradokizuna neure eginez, urtarrila eta otsaila bitartean fakultateetako ikasleen arduradunekin biltzeko aukera izan nuen. Oso eskertuta nago, bilerak oso aberasgarriak izan zirelako, eta nabarmendu nahi nuke behin baino gehiagotan azaleratu zirela pandemiako bi urteen ondorioz ikasleengan maila psikosozialean eta errendimendu akademikoan antzematen ari ziren ondorioak. Idazkaritza Orokorreko arduradunarekin eta Pertsonen Kudeaketako arduradunarekin ere bildu nintzen. Bi bilera horietan ere aurreko bi ikasturteetan izandako zailtasunak eta egindako ahaleginak azpimarratu ziren.

Bukatzeko, denon ahotan dabilen hitza ekarriko dut hona: zorioneku, zorioneku gu 2022an unibertsitateko Kontseilu Akademikoan euskaraz aritzeko –ez askorik, baina– aukera eta zoriona dugulako. Jesuita euskaralariei buruz laster argitaratuko den ikerlanaren harira, nik ezagutu ditudan eta 2004an Euskal Irakaslegoak bere 25. urteurrena ospatzean omendu zituen hiru jesuita ekarri nahi ditut gogora. Lehena Patxi Altuna, euskaraz eta euskararen inguruan ikertzeari emana, euskara unibertsitateko ikerketan ere erabiltzeko hizkuntza jaso delako erakutsi zuena. Bigarrena, Gotzon Garate, hizkuntza biziaren, erabileraren aldeko irakasle nekazina, euskara liburuetatik geletara, baserrietatik unibertsitateko ikasleen ahoetara ekarri nahi zuena, irakaskuntzarako hizkuntza eta unibertsitateko bizitzarako ere ezinbestekotzat jotzen zuena. Eta hirugarrena Dionisio Aranzadi, erabakimen handiko gizona, kontrako haizeak zituenean ere, euskararen aldeko erabakiak hartzen ausartu zena. Horra hor unibertsitatean ezagutu dugun jesuita euskaralari belaunaldi bikaina, eredu garriak nor berean. Baina, ez gara atzera nostalgiaz begira jarri, aurrerako erronketarako ikasbide bila baizik, katea eten ez dadin. Iruditzen zaigu azken urteotan, bai ikerketan, bai irakaskuntzan eta baita erabakietan ere, teknologia eraldaketak, munduaren globalizazioak eta nazioartekotu beharrak nolabaiteko balazta edo galga ezarri diotela euskarak zeraman garapenari. Gaur egungo gure arteko eleaniztasun, unibertsitate eta itsaso aberatsean euskararen txalupa norabide bila, aurrera egin ezinean somatzen dugu. Hizkuntza politika argirik ez izateak, hizkuntzen kudeaketarako iparorratzik ez izateak, gure ustez, kalte gehien hizkuntza gutxituari egiten dio. Hortaz, plan estrategiko berriaren abagunea probestu beharko genukeelakoan gaude. Hasieran esan bezala, zorioneku ni, Aldezle izanik, zuekin partekatu ahal ditudalako nire kezka.

Beti bezala bukatuko dut, esker ona adieraziz Aldezlearen bulegora jo duten guztiei, zerbitzuan jarritako konfiantzagatik. Espero dugu eman diegun arretan asmatu izana, baita erantzuna espero zutena izan ez denetan ere.

Eta eskerrik asko unibertsitateko elkarteari Aldezleari erakutsitako errespetu eta begiruneagatik.